

egunekoa

Javier Aisa

(Nafarroako IPESeko Nazioarteko Saileko kidea)

Israelen lotsabideak

Goldeetatik lantzak egingo ditut. Esaldi bibliko hori darabil Sharonek lehen ministro hautatu zutenetik. Likud alderdi eskuindarreko buruzagia Batasun Nazionaleko gobernuko burua da, eta gobernu horretan, besteak beste, sionismoko talderik estremistenak, laikoak eta erlijiosoak daude, hala nola alderdi oportunistak eta zatitu bat, Alderdi Laborista. Gobernuburuak erabateko gerra hasi du palestinarren aurka, Ameriketako Estatu Batuek lurraldean dituzten interesen ikuspegitik (adibidez, aliatu arabiarrek lasaitzea), su-etena egokiagoa izan arren. Ez gaitezen engaina. Lurralde palestinar autonomoen inbasioa berriz gertatuko da, zigor estrategia sistematiko eta trinko baten barruan dagoelako. Tsahaleko Estatu Nagusiak ezin hobeto kalkulatu du, haren ardura baita operazio militarrek taxutzea. Ondorio ikaragarrietatik haratago —hildakoak eta palestinarren ekonomiarren zein azpiegituren hondamendia—, Israelen errepresalien asmoak bat datoz Likuden segurtasun programarekin: guztiz ezabatu Osloko bake prozesua, autonomia administratiboaren tesira itzultzeko —Estatu izena eman arren—, non palestinarrak barruti txikietan bizi beharko baitute, jarraitasun geografikorik gabe, ekonomia murriztuta eta Israelgoaren mendekoa izanik. Beste maila hurbilago batean, autogobernu palestinarraren eta haren erakunde bidezko bizkarrezurra ahultzea, aldian aldiari dagokion eran eraistea eta haustea da

helburua; hitz batean, palestinarrak militarri garaitzea, negoziatu beharko den eguna iristean, negoziatzia ezinbestekoa izango baita, ahalik eta erantzun ahalmen txikiena izan dezaten. Ez da garrantzi gutxiagokoa Armadaren harrotasuna berreskuratze asmoa; izan ere, nahiko hondatuta dago, askoz bitarteko gutxiago dituzten pertsona batzuk zenbaitetan estutasunean jartzen ari direlako haren sendotasuna. Asmo horiei guztiei gehitu behar zaie erabaki dutela ez gelditzea 1967tik okupatutako lurraldeetan kokatzeko politika, areagotzea baizik, edo, gauza bera dena, kolonia hebrearrak jartzea, sionismoaren xedea bete dezaten: berrestea Zisjordaniako zatirik handiena juduei baina ez dela, Judea eta Samaria han sortu zirelako.

Hala ere, orain inoiz baino argiago ikusi da Sharonek, gobernuburutzara eramanez, hauteskunde programa betetzean, aurrera eramandako segurtasun politika eraginkortasunik gabea eta suizida dela: borroka armatuak etengabeak dira, eta astero egiten dira israeldarren aurka hildakoak eragiten dituzten erasoak. Indarkeria espiral horretan aldeak daude, baina bi alderdien ikuspegitik mendekuz betea bezain interesatua da. Sharonen gerra-estrategiak Israelgo iritzi publikoaren gehiengoa du alde, eskuinerantz egin baitu, eta bere segurtasun falta zein barne gatazkak oro kanpoko etsaiari leporatzen baitizkio. Obsesio aldaezin bat balitz bezala, israeldarrek berretsi egiten dute

beharrezkoa dela estatu indartsua izatea, jazar ez ditzaten, iraganeko gertatu bezala. Intifada aitzakiatzat erabiltzen da tesi kontserbadoreenak zabaltzeko: Israelgo Estatua ekarri zuen gerra, 1948ko independentzia gerra, ez da amaitu. Zabaltzen ari da *hafrada* egitea beharrezkoa delako iritzia, hau da, bi herrien bereizketa fisikoa, are harresiak eraikiz ere. Baina ikuspuntu horrek hainbat kontraesan ditu: ziur aski, harresiaz bestaldeko lurretan palestinarrak Estatua onartzea ekarriko luke, eta uko egin beharko litzaioke Zisjordaniako zati handienari, eta, beraz, ultranazionalistek dioten bezala, Israelgo lurraldea okupatzeari (*Eretz*), eta mugen zaintza askoz garestiagoa izango litzateke; gainera, zer egin israeldar diren palestinarrarekin, hau da, Israelgo Estatuko ia %20 herritarrekin?

Setioaren sindromera jotzeak bezala aitzindari sionistek aldeztu zuten Israel batu, berdintasunezko eta ahaltsu haren ilusioak ere ezin dituzte ezkutatu jadanik herria osatzen duten komunitateen arteko tentsioak eta desberdintasunak. Gobernuak berak Babelgo dorrea ematen du, zazpi alderdiko koalizio hauskorra baita, eta alderdi bakoitza protagonismoa zein etekin klientelistak lortzeko lehiatzen baita edozein lege proiektutan. Esaterako, erlijioso ortodoxoek hezkuntza kontrolatu nahi dute; Azpiegitura Ministerioak, zein eskuin mutur nazionalistaren esku baitago,

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Ana Urkiza



Leihotik kanpo

Jendea, autobusean, leihotik kanpora begira joaten da usu, kanpoan zerbait galdu balu bezala, edota bere hausnarketek autobusarekin eta autobusekoekin zerikusirik ez balute bezala.

Duela hiruzpalau egun, hiri barruko autobus batean nengoela, mutil bat sartu zen. Morroia deituko nioke (Lekeition bezala), ederra baitzen benetan, eta niretzat, morroi hitzak, mutilak ez dituen esanahiak dituelako. Morroi hau, poliki-poliki sartu zen autobuseko pasiloan barrena, alde banatara begira, ziur, oso ziur. Ni begira nengokion eta halako batean begiratu egin zidan berak ere. Irribarre harroso bat eskaini, eta justu, nire aurreko aulkian jarri zen. Jarlekua hartu ondoren, burua atzerantz bueltatu eta beste irribarre bat eskaini zidan. Oso ziur zegoen. Harro ere bai. Eta nik, ene baitan, barkatu egin nion. Batez ere, hain ederra izateagatik.

Aldamenean neska bat zeukan. Honek, ez zion begiratu aldamenean jarri zitzaionean. Morroiak, aurpegira begiratu zion lehenengo, eskuetara gero, eta belaunburuetara azkenik. Autobusak geltokia utzi zuenean, morroiak alde batera eta bestera begiratu zuen. Jende guztia leihotik kanpora begira aurkitu zuen. Neskari begiratu zion bigarrenez. Arrakastarik ez. Ingurura begiratu berriro eta deus ez. Azkenean, deseroso itxuraz, neskari zera galdetu zion:

—Barkatu baina ez al nauzu ezagutzen?

—Ezagutu egin behar zaitut hala? —erantzun zion neskak.

Eta noski, morroiak ez zuen halakorik espero.

—Nik uste baietz —jarraitu zuen halere—. Aktorea naiz. Egunero ateratzen naiz zure etxeko pantaila txikian.

—Ez, ez dut uste! —erantzun zion neskak irribarre eginez.

Morroiak atzerantz begiratu zuen lekukoren baten bila eta nire begiek egin zuen topo. Hartakoan ni izan nintzen irribarre eskaini ziona. Ez zitzaion gustatu.

Leihotik kanpora begira gelditu zen, kanpoan zerbait aurkitu nahi balu bezala.

seiko urrea

Juan Ignacio Perez Iglesias



Men in blue

Joan den astean ikuskizun aparta izan zuten Bartzelona alde-ara. Alde jakin batetik hainbat kontu heldu zitzaizkigun: adierazpen bitxiak, goi bileraren prestaketa lanen berri, hiru gerra hegazkin eta hamar mila poliziaren parte hartzearen iragarpena, agintarien bazkari zein afarien inguruko xehetasunak eta abar.

Beste horrenbeste heldu zitzaigun bestaldetik ere: aurreikusitako parte hartzaileen kopurua eta anizkoiztasuna, prestaturiko bidaiak, antolatutako manifestazioak eta, jakina, sindikatu, alderdi politiko eta gizarte erakundeetako ordezkarien adierazpenak. Laburbilduz, paregabeko

ikuskitasuna eskaini ziguten, eta ez dakit nik noraino ez ote den hori, ikuskizun hori eskaintzea hain zuzen ere, muntaiaren helburu nagusia.

Nik ez dut gogoan Genoa, adibidez, zer erabaki zen. Manifestazioak eta istiluak dira gogora datozkidanak. Eta urrunera joan barik, Europako agintariekin Bartzelonan erabaki dutenaz, gutariko zenbat oroitzen gara gaur? Badirudi nolabaiteko sinbiosi harremana dagoela goi agintarien eta globalizazioaren aurkakoen artean. Azken hauei, erakustoki erraldoiak eskaintzen zaizkie. Eta horren truke, onarpenik izan beharko ez luketen erabakiak isilean eta

eragozpenik gabe aurrera ateratzea lortzen dute beste aldekoek. Hori ez da gutxi eta, gainera, merke ateratzen zaie ikuskizunaren ordainsaria.

Men in black filmean, beltzez jantzitako gizonak, aparatu berezi bat erabiltzen zuten ikusi behar ez ziren lurretik kanpoko bizidunen irudia ikusleentzako garunetik guztiz ezabatzen. Nire ustez, antzeko zeregina betetzen dute tankera honetako (globalizazioaren aurkako) ekitaldiek. Bestela, goi bilera horiek Genoa edo Bartzelona bezalako hirietan egin beharrean, zergatik ez dituzte egiten Europako edozein bazterretan?

Bileraren egunetan argazki adierazgarri bat argitaratu zuten zenbait egunkarik. Hogeita hamalau gizon eta emakume bat —Espainiako erregea—, agertu ziren argazkian. Argia piztu egin zitzaidan: hogeita hamalau gizonak soineko urdinez jantzita zeuden.

kornerra

Mikel Elorza

Honetan ere

Gaurko Arrazakeriaren Aurkako Egunaren atarian Umberto Bossik esandakoak eztabaidaren beharra eta nondik norakoak zehazteko ezin egokiagoak dira. Alegia, milaka iheslari kurdu zeramatzan ontzia hondoratu egin beharko litzatekeela, hori litzatekeela egokiena. Jendea atera eta gero, noski. Zaparrada hasi zuenean egin zuen zuzenketa; handia bota eta gero, noski. Gainera dugun eztabaidetako bat da, hots: arazotako bat. Giza mugimenduen, etorkinen, iheslarien, haiek hartzen dituen gizartearena. Motz esango dut: gure artean ere Bossiren tankerako erreakzioak ohikotzat jotzen ditut, susmatzen ditut, guregana milaka iheslariz betetako ontziak iristen badira. Mestizajeaz eta multikulturalismoaz mintzo gara, baina prest al gaude mestizatze? Errezeloa dut gai honetan ere mestizajearen alde egonen garela, baina ahal dela besteak mestiza daitezela.

kornerra@egunkaria.com